

2020ko URRIAREN 21eko OSOKO BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2020-10-21.
Hasiera ordua: 19:35.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

M. Aranzazu Zubieta Ochoteco
Jose Esteban Aguirre Zubieta
Julen Errandonea Martin
Josu Iratzoki Agirre
Maialen Chantre Irazoki

HERRIRAKO

Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Raquel Quiroga Tapia

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Estibaliz Pinacho Olaciregui
German Castillo Lazcanotegui
Nahuel Maximiliano Ibarburi Lompre

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIAK (behar bezala egindako deialdiaren Gai Zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko bilkurako aktari (2020/09/16). Inork ez du azalpenik egin eta **ahobatez** onartzen da akta.

2. HIRI-JARDUKETARAKO PLAN BEREZIA 10. POLIGONOKO 135. PARTZELAN. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Ikusirik:

- Hiri-jarduketarako Plan Berezia unitate asistematikoa mugatzeko 10. poligonoko 135. partzelan (Ugalzuba Karrika 10), bizitegi-eraikin berria eraikitzea xede. Gregorio Lasaga Michelena da sustatzailea eta Jabier Lekuona Errandonea arkitektoak egin du agiria.

- Nasuvinsak 2019/03/08an egindako txosten teknikoa.

- Udal Idazkaritzak 2019/03/18an egindako txosten juridikoa.

Kontuan izanda:

- Agiria hasiera batean onartu zela Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 21ean egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

- Espedientea jendaurrean jarri zela, iragarkiak argitaratuz NAOn, prentsan eta Iragarki Oholean.

- Espedientea jendaurrean egon zen epealdian ez zela alegaziorik aurkeztu.

- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak aldeko txostena eman ziola espedienteari (2020/01/13).

- Sustatzaileak behin betiko onarpenerako eskatu zitzaion dokumentu bategina aurkeztu duela (2168/2020-10-14 zk. Udaleko Sarrera Erregistroan).

- Nasuvinsako arkitektoak, Udaleko aholkulariak, aldeko txostena eman duela 2020ko urriaren 15ean.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72. artikularekin bat etorritz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Behin betiko onespina ematea 10. poligonoko 135. partzelako (Ugalzuria Karrika 10) Hiri-jarduketarako Plan Bereziari, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren txostenak ezartzen dituen baldintzak osorik bete beharko direlarik.

2. Behin betiko onespina hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

3. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari, aipatutako KKH-ren txostenaren kopiarekin batera.

4. Erabaki hau helaraztea, onartutako agiriarekin eta emandako txosten teknikoekin batera, Nafarroako Gobernu Lurralde Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuari, gehienez ere 10 eguneko epean.

M. Aranzazu Zubieta bilerara sartu egin da.

3. AURREKONTU-ALDAKETAK.

3.1. 2020/6 ZK. DIRU-SARREREN BITARTEZ KREDITUAK SORTZEA. LIBREKI ERABAKITZEKO DIRULAGUNTZA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Kontu-hartzaitzak 2020/10/14an egindako txostena, zeinean beharrezkoa ikusten baitu aurrekontu-aldaketa bideratzea kredituak sortzeko, Toki Administrazio eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren ekainaren 29ko 317/2020 Ebazpenaren bidez onetsitako dirulaguntzagatik. Ebazpen horretan onesten dira “Libreki erabaki beharreko Toki Inbertsioen Plana (10.000 biztanletik beherako udalerriak-Despopulazioari aurre egitea)” izenekoaren udalerrri onuradunak, haietako bakoitzak jasoko duen diru kopurua, eta plan horren exekuzioa zuzendu behar duten baldintza arautzaileak. 2020/6 espedientea.

- Ondoko hauek direla kreditua behar duten aurrekontu aplikazioak:
1-3121-62200. Osasun zentrora sartzeko portxea. 3.990,58 €.
1-4540-60902. Harri-lubetak Kaulen eta Garaitarretan. 32.009,42 €.
Zenbateko osoa, 36.000,00 €.

- Gastuak ondoko diru-sarrera kontu-sailarekin finantzatuko direla:
1-7508012. Libreki erabakitzeko dirulaguntza. 36.000,00 €.
Zenbateko osoa, 36.000,00 €.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 218.2 artikuluari, indarrean dagoen Aurrekontuko 13. Exekuzio Oinarriari eta aurrekontuen eta herri gastuaren arloan 2/1995 Foru Legea garatzen duen 270/1998 Foru Dekretuaren 33.2 artikuluari jarraikiz,

aho batez ERABAKITZEN DA diru-sarreraren bitartez kredituak sortzeko espedientea onestea (2020/6). Aurrekontu-aldaketak indarra hartzen du erabaki honekin.

3.2. 2020/8 ZK. EZOHICO KREDITUA. HAINBAT INBERTSIO.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak beharrezkotzat jotzen duela finantzen aldetik jasangarriak diren zenbait inbertsio egitea.

- Otsailaren 28ko 39/2020 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2019ko Aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaitzak 2020ko urriaren 21ean egindako txostenak adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, ezohiko kreditua, gastu-partida hauetarako:

1-13300-60901. Semaforoaren kontrola berritzea. 10.100,00 €.
1-1533-61900. Zebrabide berriak eta daudenak aldatzea. 20.600,00 €.
1-1533-61901. Paretaren eraikuntza Zalainen. 50.000,00 €.
1-1533-61902. Futbol zelaiaren eta kiroldegiaren arteko bidea. 3.000,00 €.
1-1533-64000. Zoladura memoriak. 3.000,00 €.
1-3426-60900. Skate parkea Kaxernan. 30.000,00 €.
Zenbateko osoa, 116.700,00 €.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 116.700,00 €-ko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 10. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKITZEN DA:

1. Hasierako onespina ematea 2020/8 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (ezohiko kreditua).

2. Jendurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea jendurreko epealdian erreklamaziorik ez balego, behin betiko onetsizat hartuko dela espedientea.

4. ZINEGOTZIEN DIETAK ETA KALTE-ORDAINAK.

Alkateak azaldu du 2019ko ekainaren 26ko osoko bilkuran onartu zirela kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik zinegotziei ordaindu beharreko zenbatekoak. Komenigarritzat jotzen du ordaintzeko kontzeptuak hobeto zehaztea. Proposamena azaldu du eta, ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 75 eta 75 bis artikuluek xedatzen dutena jarraikiz, **aho batez ERABAKITZEN DA:**

1. 50 euroko dieta ezartzea arduraldi eksklusiborik eta arduraldi partzialik ez duten zinegotziei Udaleko kide anitzeko organoen bilkuretara joateagatik. Kontzeptu horretan sartzen dira osoko bilkura, tokiko gobernu batzarra, informazio batzordeak, kontuen batzorde berezia eta kontratazio-mahaiak.

2. Zenbateko bera ordaintzea dedikazio eksklusiborik edo dedikazio partzialik ez duten zinegotziei Udalak ordezkari den beste edozein erakundetako (mankomunitateak, partzuergoak, Cederna-Garalur, etab.) kide anitzeko organoen bilkuretara bertaratzeagatik, baldin eta bertan dietarik kobratzen ez bada.

3. 50 euroko dieta ezartzea dedikazio eksklusiborik edo dedikazio partzialik ez duten zinegotziei egiten diren beste bilera batzuetara (obra-bilerak, auzo-elkarte edo -taldeekin, informazio-bilerak, beste administrazio batzuekin, etab.) Udalaren ordezkari gisa bertaratzeagatik. Bilera horiek behar bezala justifikatu beharko dira eta bertan parte hartzeak dakarren lana eta dedikazioa konpentsatzea da helburu.

4. Kalte-ordainak ordaintzea Udalbatzako kideei, beren kargua betetzean sortutako benetako gastuengatik.

5. Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Jose Antonio Oyarzabal bileratik atera egin da.

5. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatezaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B28/2020 zenbakitik B30/2020 zenbakira.

- Ebazpenak: 175/2020 zenbakiko Ebazpenetik (2020/09/14) 201/2020 zenbakiko Ebazpenera arte (2020/10/16).

6. ESKAERAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:15ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

O.E. ALKATEA,
Aitor Elexpuru Egaña.

IDAZKARIA,
Miguel J. Belarra Tellechea.